

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA
ASPARRENEKO KANPO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO OBRAK
KONTRATATZEKO.

BAT. Kontratuaren xedea, kalifikazioa eta beharrak

Kontratu honen xedea da ASPARRENEKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obrak egitea OHIKO LUMINARIAK ERAGINKORRAGOIA ETA EGOKIAGOIA DEN "LED" ARGI SISTEMAREKIN ORDEZKATZEKO; kodea CPV 453160005 da (Seinaleztapen- eta argiteria-sistemak ezartzeko lanak).

Obra horiek ondoko agiri teknikoen arabera egikaritu beharko dira: Angel Martínez Ingeniari Industrialak idatzitako memoria teknikoa eta baldintza teknikoen agiria.

Zehazten den kontratua obretako kontratu administratiboa da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 6. artikulua arabera.

Kontratu hau burutzeko beharrak hauek dira: dagoen argiteria publikoa, deskargalanparen bidezkoa, LED argiekin ordezkatzeko, kalitate-maila onari eusteko eta energia-aurrezki lortzeko, eta, ondorioz, ekonomia-aurrezki handia ere lortzeko.

BI. Hautaketa- eta esleipen-prozedura

ASPARRENEKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obra-kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, eta horretan interesaturik dagoen enpresari orok aurkeztu ahal izango du bere proposamena. Era berean, kontratuaren baldintzak ezin izango dira inola ere negoziatu, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 157. artikulua xedatutakoaren arabera.

Proposamenak balioztatzeko eta eskaintza ekonomikoki onuragarriena zein den erabakitzeko, kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura duten irizpideak hartuko dira kontuan, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.1 artikulua arabera eta baldintza-orri honen hamargarren baldintzak diosenari jarraiki.

HIRU. Kontratzailearen profila

Udal honek, bere kontratu-jardueraren gaineko informazioaren gardentasuna eta hura herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, beste edozein publizitate-baliabide erabiltzeko aukera alde batera utzi gabe, Kontratzailearen Profila dauka ezarrita, hurrengo web-orrialde honetan jasotako zehaztapenen arabera ikusteko moduan: www.asparrena.eus



LAU. Kontratuaren baldintza eta finantzaketa

Kontratuaren zenbatekoa 550.144,09 eurokoa izango da. Adierazitako zenbatekoari BEZi dagozkion 115.530,25 euro erantsiko zaizkio. Beraz, zenbatekoa guztira 665.674,34 eurokoa izango da.

Kontratuaren balio zenbatetsia 550.144,09 eurokoa da (BEZ barik), kontuan hartuta kontratuan egin daitezkeen luzapenak eta aldaketak.

2016ko ekitaldian aurrekontu-esleipen nahikoa dago aurrekontu-aplikazioaren bidez, 2/2016 zenbakidun kreditu-espeditentean jasoa. Aipatu espeditentea kontratua esleitu aurretik onartu denez, espeditentea behin betiko onartu beharko da berau balioduna izan dadin.

Kontratu honek Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) laguntza dauka, erakunde horren Zuzendari Nagusiaren 2016ko maiatzaren 18ko ebazpenaren bidez esleitu eta % 0ko interes-tasako mailegu-eragiketa baten bidez egina, IDAEren Administrazio Kontseiluaren 2015eko martxoaren 24ko Ebazpenaren arabera; horren bidez ezartzen dira udalerrietan kanpoko argiteria berritzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

BOST. Kontratuaren iraupena

ASPARRENEKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obra-kontratuaren iraupena 5 hilekoa (150 egun) izango da.

Kontratua betetzen hasiko da zuinketa egiaztatzeko egintzarekin batera, kontratua formalizatu eta 7 eguneko epean.

Ez da luzapenik egongo.

SEI. Kontratatzeko gaitasunaren egiaztapena

Esleipen-prozedura honetan parte har dezakete pertsona natural zein juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, ez badute kontratatzeke debekurik eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badute.

1. Enpresariaren **jarduteko gaitasuna** egiaztatzeke modua:

a) Pertsona juridikoen jarduteko gaitasuna honako agiri hauekin: eraketa-eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sorrerako egintza, non ageriko diren haren jarduera arautzen duten arauak, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, pertsona juridikoaren ezaugarrien arabera.



b) Espainiarrak izan gabe Europako Batasuneko estatu kide bateko enpresarien jarduteko gaitasuna haien jarduera garatzen duten Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioaren bidez, edo, bestela, zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, arauzko baldintzen arabera egina, Europako Batasuneko xedapen aplikagarrien arabera.

c) Atzerriko gainerako enpresariak Espainiak dagokion estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostenarekin, edo, bestela, enpresak helbidea duen lurraldeko Bulego Kontsularrak egindakoarekin.

2. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan arauturiko **kontratatzeko debekurik ez dutela** honelaxe frogatu ahal izango dute enpresariak:

a) Lekukotza judizialaren edo administrazio-ziurtapenaren bidez, kasuaren arabera; eta agintaritza eskudunak ezin baldin badu egin dokumentu hori, horren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta, administrazioko agintaritza, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean eginda.

b) Europako Batasuneko estatuetakoen enpresen kasuan, dagokien estatuko legerian aukera hau aurreikusita baldin badago, haren ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, agintaritza judizial baten aurrean egina.

3.- Enpresariaren sailkapena.

Esleipen-prozedura honetan parte hartu ahal izateko, enpresariak honako sailkapena eduki behar du:

- I taldea (Instalazio elektrikoak)
- 01 azpitaldea (Argiteria, argiztapena eta argi-balizak)
- D kategoria

4. Enpresariaren kaudimena:

4.1 Enpresariaren **kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** modu hauen bidez egiaztatu beharko da:

a) Negozioen urteko bolumena, edo negozioen urteko bolumena kontratuaren xede den esparruan, esleipen-iragarkian eskatzen den zenbatekoaren parekoa edo handiagoa.

b) Enpresariak hornitzaileei egingo dizkien batez besteko ordainketak.

4.2. Obra-kontratuetan, enpresariaren **kaudimen teknikoa** modu hauen bidez egiaztatu beharko da:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

- a) Azken hamar urteetan burututako obren zerrenda, ziurtagiri bidez bermatuta obrarik garrantzitsuenak egoki burutu direla; ziurtagiriok jasoko dituzte zenbatekoak, datak eta obrak non egin diren. Era berean, zehaztu beharko dute lanbidea arautzen duten arauen arabera eta egoki gauzatu diren. Hala dagokionean, agintari eskudunak zuzenean igorriko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoari.
- b) Proiektua gauzatzeko arduradunen titulu akademikoak eta profesionalak.
- c) Kontratua gauzatzeko orduan enpresariak ingurumenaren kudeaketa egiteko aplikatu ahal izango dituen neurriak.
- d) Obra egiteko erabili ahal izango duen makineria, materiala eta talde teknikoaren adierazpena, dagokion ziurtagiriaren bidez.

ZAZPI. Proposamenen eta agiri administratiboen aurkezpena

Eskaintzak Asparreneko Udaletxean aurkeztuko dira (Herriko enparantza 1, Araia), jendea artatzeko ordutegian, esleipen-iragarkia ALHAOn eta Kontratatzailearen Profila www.asparrena.eus webgunean agertu eta, hurrengo egunetik hasita, hogeita sei eguneko epean.

Proposamenak postaz edo faxez aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako tokietan.

Proposamenak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak, batetik, posta-bulegotik zein egunetan bidali duen frogatu beharko du; bestetik, egun berean, kontratazio-organoari iragarri beharko dio, fax bidez, eskaintza bidali duela, espediente-zenbakia jakinarazita, kontratuaren xedearen izenburu osoa jarrita eta lizitatzailaren izena adierazita.

Aipatu faxa jaso dela egiaztatzeko, udal-idazkariak eginbidea ezarriko dio. Baldintza biak bete ezean, proposamena ez da onartuko, baldin eta iragarkian adierazitako epemuga igaro eta gero aurkezten bada proposamen hori. Edonola ere, data hori igaro eta hamar egunen buruan ez baldin bada dokumentaziorik jaso, hortik aurrera ez da onartuko.

Erabil daitezkeen baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek bete behar dituzte, gainera, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak.

Lizitatzaille bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, bestalde, beste batzuekin eraturako aldi baterako elkartean inongo proposamenik izenpetu, baldin eta berea indibidualki aurkeztu badu edo beste aldi

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

baterako elkarteren batean agertzen bada. Baldintza horietakoren bat hautsiz gero, ez da onartuko hark izenpetutako proposamenik.

Proposamen bat aurkezteak berekin dakar enpresariak baldintzarik gabe onartzea Agiri honetako baldintzak.

Esleipen-prozeduran parte hartzeko eskaintzak hiru gutun-azal itxitan aurkeztu behar dira, lizitatuzaileak sinatuta eta jakinarazpenetarako helbidea jarrita, gutun-azalaren izenarekin eta esaldi hau gainean duela: "Proposamena, ASPARRENEKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obrak kontratatzeko esleipen-prozedurarako". Gutun-azalen izenak hauek dira:

- «A» gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.
- «B» gutun-azala: Balio-judizio baten arabera aztertu beharreko dokumentazioa.
- «C» gutun-azala: Proposamen ekonomikoa eta automatikoki kuantifika daitekeen dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzean sartu behar diren agiriek originalak edo kopia kautotuak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Gutun-azal bakoitzean, ondoko agiri hauek sartu beharko dira, dagokien zerrenda zenbakidunarekin batera:

«A» GUTUN AZALA

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

a) Enpresaren sailkapenaren egiaztagiria.

b) Administrazioarekin kontratatzeko legezko baldintza guztiak betetzen dituela agerrarazten duen lizitatuzailearen Erantzukizunpeko Adierazpena.

Hurrengo ereduaren arabera aurkeztuko da:

«ERANTZUKIZUNPEKO ADIRAZPENEA EGITEKO EREDUA

_____ jaunak/andreak (jakinarazpenetarako helbidea: _____, _____ kalea, _____ zk.; NA zenbakia: _____), _____ erakundearen izenean (IFK: _____), _____ esleipen-prozeduran parte hartzeko asmoz, _____(a)ren aurrean

BERE ERANTZUKIZUNPEAN, ONDOKOA ADIRAZTEN DU:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

LEHENIK. ASPARRENEKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obren kontratazioan parte hartuko duela.

BIGARRENIK. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146. artikulua lehen atalean ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela ASPARRENEKO KANAPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO kontratuaren esleipenduna izateko, eta zehazki:

- Izaera juridikoa eta, hala badagokio, ordezkaritza duela.
- Enpresak sailkapen egokia duela eta beharrezko kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala duela.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritako kontratatze debekurik ez duela. Aitorpen horretan, berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak.
- Edozein arlotako epaitegi eta auzitegi espainiarren mende jarriko dela kontratua dela-eta zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabeherak ebazteko; eta, era berean, uko egiten diola, dagokionean, legokiokoen atzerriko barruti jurisdikzionalari. (Atzerriko enpresen kasuan)
- Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa _____ dela.

HIRUGARRENIK. Kontratuaren esleipendun gisa edota beste edozein unetan eskatuz gero, aitorpen honen bigarren atalean ezarritako agiriak badituela eta haien balioa egiaztatze konpromisoa hartzen duela.

Eta hala jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen du.

_____ (e)n, 2016ko _____ ren ____ (e)an. Aitortzailearen sinadura.
Sin.: _____».

«B» GUTUN AZALA

BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA AZTERTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Balio-judizio baten arabera kontuan hartu beharreko irizpideak baloratzeko beharrezko agiriak aurkeztuko dira gutun-azal honetan. (Memoria teknikoa)

«C» GUTUN AZALA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

a) Proposamen ekonomikoa.

Hurrengo eredu honen arabera aurkeztu behar da:

« _____ jaunak/andreak (jakinarazpenetarako helbidea: _____, _____ kalea, _____ zk.; NA zenbakia: _____), _____ erakundearen izenean (IFK: _____) eta honako espediente honen berri izan duelarik: ASPARRENEKO KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obren kontratazioa (prozedura irekia, eskaintza ekonomikoa onuragarriena eta hainbat esleipen-irizpide); ALHAOn (zk.:____) _____ (data) argitaratua eta, era berean, Kontratatzailearen Profilean; adierazten dut, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den baldintza-orria eta, bestetik, osorik onartzen dudala, eta esleipen-prozeduran parte hartuko dudala eta, halaber, konpromisoa hartzen dudala kontratuaren xedea _____ euroan gehi Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion _____ euroan gauzatzeko.

_____ (e)n, 2016ko _____ ren _____ (e)an. Aitortzailearen sinadura.
Sin.:_____».

b) Prezioaz gain, automatikoki aintzat har daitezkeen irizpideei dagozkien agiriak.

ZORTZI. Esleipen-irizpideak

Proposamenak balioztatzeko eta eskaintza ekonomikoki onuragarriena zein den erabakitzeko, esleipen-irizpide bat baino gehiago hartuko da kontuan:

A. Automatikoki balioztatuko diren irizpideak handitik txikira puntuatuko dira:

- Proposamen ekonomikoa: gehienez **50** puntu: 3 puntu gehituko dira esleipen-prezioaren gainean egiten den % 1eko beherapen bakoitzeko, gehieneko beherapena % 15ekoa izanik.

Beherapen horretatik aurrera, formula hau aplikatuko da:

45,50
Puntuazioa: 51 - _____
(Beherapena - 4,50)

- Obren berme-epealdia luzatzea: **12** puntu.

Kontratastak egindako obren zaintza- eta mantentze-egoera ona izango dela bermatzeko berme-epealdi gehigarriaren arabera, honela banatuko dira puntuak: 1,5 puntu, agiri honetan aurreikusitako gutxieneko bi urteko epetik aurrera eskainitako urte gehigarri bakoitzeko; gehienez 12 puntu eskuratu ahal izango dira.



B. Balio-judizio baten arabera aztertuko diren irizpideak:

- Memoria teknikoa: **38** puntu.
- Obraren planteamendua eta garapena, erabili beharreko eraikuntza-metodoak, hornitzaileen deskribapena, hornitzaileen konpromiso-gutunak, enpresa azpikontratistak, laguntzaileak eta abar: 4 puntu.
- Honako hauen gaineko ezagutza: lehendik dagoen eta berriro behar den instalazioa, beste zerbitzu batzuekin izan daitezkeen interferentziak (sare elektrikoak, telekomunikazio-sareak, ur-hornidurako sareak, saneamendukoak, gasarenak eta abar), lehendik dagoen obra zibilaren egoera, aginte-taulak eta abar: 4 puntu.
- Argiteria-zerbitzua mantentzea obrak egin bitartean; lehendik dauden argiak eta kableak kendu ondoren fatxadak egokitzeko tratamendua: 4 puntu.
- Obren plangintza (obra-unitateen eta kale-tarteen arabera). Proiektuan jasotako obren deskribapena oinarri: baldintza-orrian aurreikusitako gehieneko gauzatze-epea betetzeko faseak, prozesua eta obra osoaren garapena; inbertsioaren banakapena, asteen arabera, esleipen-prezioa adierazita: 3 puntu.
- Obrako materiala pilatzeko eta etxolak jartzeko proposatutako lekua: 2 puntu.
- Berme-epealdian arreta emateko plana, instalazioan egin beharreko doiketak egiteko edo gorabeheri erantzuteko; eta, besteak beste, antolaketa, ekipoen egitura, administrazioarekiko harremanetarako sistema, erantzuteko denbora eta gorabeheren sailkapena zehaztea: 6 puntu.
- Erabiliko diren materialen ziurtagiriak, homologazioak eta fitxa teknikoak: 15 puntu.

BEDERATZI. Kontratazio-mahaia

Kontratazio-mahaiak Alkate-Presidente andrea izango du buru eta Udalbatzako funtzionario bat izango da Idazkaria, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 10. puntuaren arabera, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2. artikuluari dagokionez, zeinaren bidez partzialki garatzen den Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea. Mahaiko kideak izango dira udal-taldearen ordezkari bana eta Udaleko Idazkari Kontu-hartzaile jauna.

SPKLTBren 150.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Adituen batzorde bat eratuko da, gutxienez egiaztatutako lan-kalifikazioa duten hiru kidek osatua, eta horien gain geratuko da esleipen-irizpideen balorazioa egitea, kuantifikazioa balio-judizio baten mende dagoenean.

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxa 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Aipatu adituen batzordeko kide izango dira txosten teknikoaren egile Angel Martinez Gonzalez ingeniari industrial jauna, Jose Maria Ruiz Lopez udal-arkitekto jauna eta Isabel Andres Alonso arkitekto tekniko andrea.

HAMAR. Administrazioaren eskumenak

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 210. artikulua arabera, hauek dira kontratazio-organoaren eskumenak:

- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Horren betetzeak sor litzakeen zalantzak argitzea.
- c) Kontratuaren moldaketa interes publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratua baliogabetzea onartzea eta horren eraginak zehaztea.

Udalak beretzat gordeko du, bidezko arrazoiengatik, kontzejuren batean luminariak ez aldatzeko erabakia. Kasu horretan, kontratuaren prezioa jaitsi egingo da, proiektuaren prezio-koadroaren proportzioan edo kontratatutako banakako prezioen arabera, esleipenean beherapena aplikatu izan balitz.

HAMAIIKA. Proposamenak irekitzea

A gutun-azalaren irekiera eta kalifikazioa

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Mahaiak A gutun-azala ireki, eta barruan dakartzan agiriak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak hiru egunera bitarteko epea emango dio lizitatzailari aurkeztutako agirietan sumaturiko akats edota hutsegite konpongarriak zuzen ditzan.

Mahaiak posta elektronikoz jakinaraziko dizkie interesdunei azalpen edota informazio osagarrien eskaerak. Modu berean jakinaraziko ditu Mahaiak aurkeztutako agirietan egon litezkeen akatsak; kasu horretan, hiru egun balioduneko epea izango da, aipatu Araudiaren 81. artikulua arabera, lizitatzailerek akatsak konpon ditzaten.

Behin aurkezturiko agiriak kalifikatuta eta, beharrezkoa balitz, antzemandako akats edo hutsegiteak konponduta, Mahaia onartutako hautaketa-irizpideekin bat egiten duten enpresak zehazten hasiko da, eta berariaz adieraziko du esleipenerako nor izan den onartua, nor ez eta zergatik.

B gutun-azalaren irekiera eta balorazioa

B gutun-azalean aurkezturiko agiriak, balio-judizioen arabera irizpideen bitartez epai daitezkeenak, jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epemugaren osteko

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
 ● *Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net*

bosgarren egun baliodunean, 10:00etan. Larunbata balitz, hurrengo egunean egingo litzateke. Horretarako, agiri horietan akats edo hutsegiteak konpondu beharko balira, Mahaiak sei egun balioduneko epea emango du gehienez, SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 EDren 27. artikulua arabera.

Adituen batzordeak hamar egun baliodun izango ditu, irekiera-ekitaldia egin ondoren, irizpide horiek baloratzeko.

C gutun-azalaren irekiera

B gutun-azala ireki eta barruko agiriak baloratu ondoren, C gutun-azala ekitaldi publikoan irekiko da, kontratazailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Horretarako, agiri horietan akats edo hutsegiteak konpondu beharko balira, Mahaiak sei egun balioduneko epea emango du gehienez.

Ekitaldi horretan jakinaraziko da eskaintza bakoitzean balio-judizioaren arabera irizpideei emandako balorazioa.

HAMABI. Agiriak eskatzea

Kontratazio-mahaia berriz bilduta, kontuan hartuta balio-judizioaren arabera irizpideei emandako balorazioa (B gutun-azala) eta automatikoki hazta daitezkeen irizpideen balorazioa (C gutun-azala), Kontratazio-mahaiak proposatuko du kontratua proposamen ekonomiko onuragarrienari esleitzea.

Mahaiaren Presidente andreak proposamen ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatuari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146.1. artikuluan jasotako aldez aurretiko betebeharrak betetzearen egiaztatzea aurkezteko (aipatu agiria lizitatuaren erantzukizunpeko adierazpenarekin ordeztzen bada), baita zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela adierazteko egiaztatzea ere, edota kontratazio-organismoari horren egiaztatzea zuzenean lortzeko baimena eman diezaion, kontratua gauzatzeko hitz emandako bitartekoak badituela egiaztatzeke agiria, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2. artikulua arabera, eta beharrezko behin betiko bermea eratu izanaren egiaztatzea ere bai.

Administrazioarekin kontratua egiteko eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke unea izango da proposamenak aurkezteko epearen amaiera.

HAMAHIRU. Behin betiko bermea

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, l. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatuak **esleipenaren zenbatekoaren % 5eko bermea** osatu izana egiaztatu beharko du, **Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) kenduta**.

Bermea honako modu hauetan aurkeztu ahal izango da:

a) Diru xehean edota Zor Publikoko baloreetan, kasuan kasu, Lege horren garapen-arauetan ezarritako baldintzen arabera. Diru xehea eta adierazitako baloreen ibilgetzearen egiaztagiria Gordailu Kutxa Orokorrean utziko dira, edo Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzetako sukurtsaletan, edo Erkidego Autonomoetako Kutxa edo establezimendu publiko baliokideetan, edo tokiko entitate kontratatzaileetan, horien aurrean izango baitute eragina, Lege horren garapen-arauetan ezarritako baldintza eta moduen arabera.

b) Abal bidez, Lege horren garapen-arauetan ezarritako baldintza eta moduen arabera, Espainian eragiketak egiteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kreditu-establezimendu finantzario eta elkarrekiko berme-sozietateetako batean, aurreko a) atalean adierazitakoak.

c) Kauzio-asegurua kontratu bidez, Lege horren garapen-arauetan ezarritako baldintza eta moduen arabera, arlo horretan eragiketak egiteko baimena duen aseguru-entitate batekin. Aseguruaren egiaztagiria aurreko a) atalean adierazitakoren batean aurkeztu beharko da.

Bermea ez da itzuliko edo bertan behera utziko berme-epealdia iraungi eta kontratua egoki bete bitartean.

Berme horrek Sektore Publikoko Legearen Testu Bateginaren 100. artikuluan jasotako kontzeptuei erantzun die, eta kontratua amaitzeko epea **2 urte** igarota, kontratugileari egotzi ezinezko arrazoiengatik harrera formala eta likidazioa gertatu ez badira, berandutu gabe ekingo zaio berau itzultzeari edo bertan behera uzteari, aipatu 100. artikulua adierazitako erantzukizunak zuri ondoren, ezpada bermearen zabalpena eskaini duela; horrek bermearen % 50i eustera derrigortuko luke, epea amaitu arte.

HAMALAU. Ezohiko balio edota gehiegizkoak dituzten eskaintzak.

Eskaintzen ezohiko edo gehiegizko izaera ondoko parametroen arabera aztertuko da:

Eskaintza ekonomikoak lizitazio-tipoaren % 25etik gorako beherapenak dituzten.

HAMABOST. Kontratuaren esleipena

Eskatutako agiriak jasota, kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du, agiriak jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean.



Ezin izango da esleipen bat hutsik deklaratu baldintza-orrian jasotako irizpideen arabera eskaintza edo proposamen onargarriren bat balego.

Esleipena arrazoitua izango da, hautagai edo lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpenak jaso beharko du, edonola ere, baztertutako lizitatzaille edo hautagaiari esleipen-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako helegitea ezartzeko informazioa. Zehatzago, honako hauek jaso beharko ditu:

- Baztertutako hautagaien aldean, beren hautagaitza baztertzeko arrazoen adierazpen laburtua.
- Esleipen-prozeduratik baztertutako lizitatzaileren aldean, beren eskaintza ez onartzeko arrazoen adierazpen laburtua.
- Edozelan, esleipendunaren izena, esleipendunaren proposamenaren ezaugarriak eta abantailak, horren eskaintza hautatzeko erabakigarriak izan direnak, eskaintza onartu zaien beste lizitatzaileren aldean.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da formalizazioari ekiteko epea.

Asparreneko Udalaren izenean jarduten duen organoa Udalbatza da, SPKLTBren Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

HAMASEI. Kontratuaren formalizazioa

Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpen-dataren osteko hamabost egun balioduneko epean; agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikorako sarbidea izateko.

Kontratugileak eskaera egin dezake kontratua eskritura publikoan jasotzeko, egintza horri dagozkion gastuak bere gain hartuta.

HAMAZAZPI. Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak

Kontratu honen araubide juridikotik sortzen diren eskubide orokorrez gain, kontratistak eskubidea izango du emandako zerbitzuaren prezioa jasotzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean ezarritako baldintzetan, hitzartutako prezioaren arabera.

Ordainketarako, Administrazioak hilero emango ditu, dagokion hilaren ondoko lehen hamar egunetan, aipaturiko denbora-tartean egindako lanaren egiaztagiriak, baldintza

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, l. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

administratibo partikularren orrian kontrakoa adierazi ezean izan ezik, ordainketa horiek konturako ordainketa baitute kontzeptuzat, azken neurketan gerta litezkeen zuzenketa eta moldaketen menpekoak, eta edonola ere hartzen dituzten lanen onarpen eta harrera ez dakartzatenak.

Kontratistak lanak behar baino azkarrago egin ahal izango ditu lanok kontratuan jasotako epeen barruan egiteko, lanen Zuzendaritzaren iritziz lan horiek egitea desegokia izan ezean.

Konturako ordainketak egiaztatu ahal izango dira, aldeztatik kontratistak hala eskatuta idatziz, lanari lotutako materialak, instalazioak eta ekipoak erosteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 232. artikuluan horretarako ezarritako moduan eta bermekin, eta HAKLAOren 155. eta 157. artikuluen arabera.

Kontratu honen araubide juridikotik eratorritako betebeharrak orokorrean gain, kontratistak honako berariazko betebeharrak hauek izango ditu:

- Lan- eta gizarte-betebeharrak. Kontratistak lan, gizarte-segurantzaren eta lan-arriskuen prebentzioaren alorretan indarrean diren xedapenak bete beharko ditu.
- Kontratistak kontratua gauzatzeko beharrezko bitarteko pertsonal eta material nahikoak eskaini edota egokitu behar ditu (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 64.2. artikulua).
- Kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 227. artikuluan aurreikusitako betebeharrak bete behar ditu, azpikontratazioa eginez gero.
- Lanen seinaleztapena. Kontratistak bere gain hartuko du obrarako sarbidea adierazteko beharrezko seinaleztapena, hala nola lanek hartzen duten guneko zirkulazioarena eta lanen garapenak eragindako balizko arrisku-guneena, lekuan bertan zein horren inguruneetan.
- Kontratistak Laneko Segurtasun eta Osasun Planean jasotako aurreikuspenak bete beharko ditu.
- Lanak hasi baino lehen, halako kartel bat ezarri beharko du:

Proiektuaren izenburua eta Programaren izendapena eta irudia argi azalduko dituen, bai eta jasotako diru-laguntza ere, Programaren Irudi Eskuliburuan ezarritako betebeharraren araberrako diseinu grafikoarekin, euskarrien zimentazioa eraikitzeko lan zibila, hondeaketa, enkofratua, buloiak jartzea eta soberako materialak zabortegiraino garraiatzea barne.

- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak. Kontratistaren konturakoak izango dira lizitazio- eta esleipen-iragarkiaren edota iragarkien gastuak eta zergak, kontratuaren

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
 ● *Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net*

formalizazioaren 700 euroko gehieneko mugaraino, baita aplikagarriak diren beste edozein ere, indarrean diren xedapenen arabera, horiek adierazten duten modu eta zenbatekoan. Lana finantzatzen duten Administrazioen arteko batek hala eskatuz gero, kontratistak lanaren identifikazio-kartelak ipiniko ditu beraren konturako, eskatzen zaizkion ezaugarriekin.

HAMAZORTZI. Laneko segurtasun- eta osasun-plana

Kontratua formalizatutakoan, esleipendunak Obrako Laneko Segurtasun eta Osasun Plana eratuko du, Proiektuaren Segurtasun eta Osasun Azterketara egokitua, eta hor jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko dira. Planean jasoko dira, hala badagokio, prebentzio-neurri alternatiboen proposamenak, Kontratistak dagokion justifikazio teknikoarekin proposatuta; horiek ezingo dute inola ere murriztu Azterketan aurreikusitako babes-maila.

Plana Udalak onartuko du, obra hasi aurretik, segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailearen edo, ez balitz derrigorrezkoa Koordinatzailea izendatzea, Obraren Zuzendaritzaren aurretiko txostena jaso ondoren, eta Lan Agintaritzari jakinaraziko zaio. Izapide hori egindakoan, obraren zuintetaren eta hasieraren akta idatziko da. [Eraikuntzako obretan bete beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-arauak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 7.2. artikulua].

HEMERETZI. Prezioen berrikuspena

Ez dagokio.

HOGEI. Bermearen harrera eta epealdia

Obrak bukatutakoan, bilduko dira kontratuaren arduraduna, izendatu balitz, edo Administrazioak beraren ordezkari izateko izendaturiko teknikari bat, obren zuzendaritzaren teknikari arduraduna eta kontratista, beraren teknikariarekin batera, egoki baderitzo.

Hiru hileko epean, harreratik aurrera, kontratazio-organoak gauzaturiko obren amaierako ziurtagiria onartu beharko du, eta kontratistari ordainketa egingo zaio kontratuaren likidazioaren kontura.

Obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako arauen arabera gauzatuta, Administrazio kontratatzaileak beraren ordezkari izateko izendaturiko funtzionario teknikoak onartutzat joko ditu; orduan, dagokion akta idatzi, eta bermearen epealdia hasiko da.

Obrak ez baldin badaude onartutzat jotzeko moduan, hala jasoko da aktan, eta haien Zuzendariak antzemandako akatsak adierazi eta jarraibide zehatzak emango ditu, berauek zuzentzeko epe bat ezartzearekin batera. Epe hori igarota kontratistak ez balitu

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

zuzendu, bi aukera egongo dira: beste epe bat ematea, luzaezina, edo kontratua baliogabetzea.

2 urteko berme-epealdia ezartzen da, obren harrera-datatik aurrera, edo luzatutako berme-epealdia bukatzen denetik.

Berme-epealdia bukatu baino hamabost egun lehenago, obraren zuzendari teknikariak, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta, txosten bat idatziko du obren egoerari buruz. Aldekoa balitz, kontratista erantzukizun orotatik salbuetsita geratuko da, ezkutuko akatsengatik erantzukizunetik salbu; orduan, bermea itzuliko zaio, edo kitatu egingo da, kontratua likidatuko da eta, hala badagokio, ordaintzeko daudenak ordainduko dira, hirurogei eguneko epean. Txostena ez balitz aldekoa eta antzemandako akatsen arrazoa balitz obra gauzatzeko orduan hutsuneak egon direla, eta ez eraikitakoaren erabileraren ondorio, bermearen epealdi barruan, zuzendari teknikariak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako emango dion epean, obren kontserbazioaz arduratzen jarraituko du, inolako eskubiderik gabe diru-kopururen bat jasotzeko berme-epealdia luzatu izanagatik.

Obra hondatzen bada berme-epealdia iraungitakoan eraikuntzan ezkutuko akatsak daudelako, kontratistak ez duelako bete kontratua, harreratik aurrerako hurrengo hamabost urteetan bera arduratuko da kalteen ordainketaz.

HOGETA BAT. Kontratua gauzatzea

Obra-kontratua hasiko da gauzatzen obren zuinketaren eta hasieraren bigarren egiaztapen-aktarekin batera. Horretarako, kontratuan ezartzen den epearen barruan, betiere hilabetetik beherakoa kontratua formalizatzen denetik, arrazoituriko salbuespenezko kasuetan salbu, obrez arduratuko den Administrazioako zerbitzuak, kontratista aurrean dagoela, Obra-proiektuaren onarpenarekin batera eginiko zuinketa egiaztatuko du, eta, emaitza jasotzeko, bigarren akta hori idatziko da, alde biek sinatuko dutena; aktaren ale bat kontratua egin zuen organoari igorriko zaio.

Obrak gauzatuko dira zorrozki beteta Baldintza Administratibo Partikular eta Teknikoen Orri honetan jasotako xedapenak, kontratuaren oinarri den proiektua eta horren interpretazio teknikoa eginez obren Zuzendariak kontratistari emandako jarraibideak, bakoitzari dagokion arloan.

Kontratista behartuta dago kontratua berau gauzatzeko ezarritako epearen barruan betetzera, eta kontratua jarraian gauzatzeko epe partzialak ere bere beharko ditu.

Kontratista bere betebeharretan berandutuko balitz, Administrazioak ez du aurretiko agindurik eman beharko.

HOGETA BI. Fakturak

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Sektore Publikoko Legearen Testu Bateginaren Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera, kontratistak betebeharra du emandako zerbitzuei dagokien faktura aurkezteko, dagokion erregistro administratiboan, fakturaren izapidetzea dagokion organo administratiboari edo unitateari igor dakion.

Fakturan jasoko dira, fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan ezarritako datuez eta baldintzez gain, aipatu Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren atalean nahiz fakturazio elektronikoari buruzko araudian jasotako hauek:

- a) Kontratazio-organoa Asparreneko Udala dela.
- b) Kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen organo administratiboa Asparreneko Udala dela.
- c) Hartzailea Asparreneko Udala dela.
- d) DIR3 kodea L01010091 dela.
- e) Kontabilitate-bulegoa L01010091 dela.
- f) Organo kudeatzailea L01010091 dela.

HOGETA HIRU. Ez betetzearen ondoriozko zehapenak.

Kontratista, berari egozgarriak zaizkion arrazoiak tarteko, berandutu egingo balitz guztirako epea betetzeko orduan, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua baliogabetzea edo egunero **100 euroko** zehapena ezartzea.

Berandutzearen ondoriozko zehapenak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua baliogabetzeko edo aurrera jarrai dezan adosteko, baina zehapen gehiago ezarrita.

Kontratistak, berari egozgarriak zaizkion arrazoiak tarteko, ez balu beteko kontratuan definituriko prestazioen gauzatze partziala, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua baliogabetzea edo aurretik ezarritako zehapenak ezartzea.

Kontratistak ez balu beteko kontratua gauzatzeko nahikoa bitarteko pertsonal edo material atxikitzeko betebeharra, **5.500 euroko** zehapenak ezarriko dira.

Zehapenak ezarriko dira kontratazio-organoaren akordio bidez, kontratuaren arduradunak, izendatu balitz, proposatu ostean; akordio hori berehala betearazi beharko da, kontratistari guztirako ordainketa edo ordainketa partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetan edo, hala balegokio, eraturako bermean kenketa eginez, ezin direnean kendu aipatu ziurtapenetatik.

HOGETA LAU. Kontratua baliogabetzea

Kontratua baliogabetuko da Baldintza-orri honetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Sektore Publikoko Legearen Testu

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Bateginaren 223. eta 237. artikuluetan ezarritako kasuetan, eta kontratazio-organoak adostuko du ofizioz edo kontratistak hala eskatuta.

Kontratua kontratistaren erruz baliogabetuz gero, behin betiko bermea konfiskatuko da, alde batera utzi gabe Administrazioari eragindako kalte-ordainak ordaintzeko betebeharra, bermearen zenbatekoa gainditzen duen kopuruan.

HOGETA BOST. Kontratuaren araubide juridikoa

Kontratu hau administratiboa da, beraz, berau prestatzeko, esleitzeko, gauzatzeko eta iraungitzeko, Baldintza-orri hau hartuko da kontuan; hor aurreikusi gabeko guztia ebazteko, berriz, aplikatuko dira azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Sektore Publikoko Legearen Testu Bategina, Sektore Publikoko Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duena Sektore Publikoko Kontratuaren 30/2007 Legearen kontra egin ez eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu ostean indarrean den guztian; horien osagarri, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, bestela, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa izango da eskuduna kontratu hau gauzatzeko orduan sor daitezkeen gorabeherak ebazteko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Sektore Publikoko Legearen Testu Bateginaren 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

----000----

JOSÉ IGNACIO GOENAGA GARRALDA JAUNAK, ASPARRENEKO UDALEKO (ARABA) IDAZKARIAK:

ZIURTATZEN DUT: ASPARRENEKO KANPO ARGITERIA PUBLIKOA BERRITZEKO obrak kontratatzeke Baldintza ekonomiko-administratibo partikularren orri hau Asparreneko Udaleko Osoko Bilkurak onartu duela, 2016ko ekainaren 2ko ohiko saioan.

Eta hala jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, idazki hau egin dut Alkate-Presidente andreak aginduta eta beraren oniritziarekin, Araian, 2016ko ekainaren 3an.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA